


CHAKUR TA NAGUSIAREN MUTURRA



Beñ batean Perrando zetorren beste lagun askorekiñ Andoaingo pestetan egonta bere eche aldera eta Tolosako sarrean alkar jo zuten zaldun batek eta berak.

Zaldun au zijoan zakur batekiñ zeñari Perrandok esan zion ostikada bat emanaz eta gogoan eukirik bere nagusiak beñ egin zion charkeri bat.

—Joan adi nai dekan tokira nagusiaren mutur zikiñ arraio orrekiñ.

Zakurraren nagusia aserraturik Perrandoren esanaz deitzen dio oni alkatetara. Galdeturik ia egia zan zakurraren nagusiari faltatu zion errespetora, zakurrari esanik: Joan adi nagusien mutur zikiñ orrekiñ, erantzun zuan:

—Egia da nik ori esan niona etaoraiñ nik galdetzen diot onera ekarri nauenari; ¿bedorrena zan zakurra?

—Bai, nerea zan.

—Bada bedorrena bada zakurra, bere muturra ¿norena izango da bedorrena ezpada? (Gertatua).

J. RAMÓN JAUREGUI.

* * *

¿ZER DA?



Loiolako baserri
inguru batian
lapur batzuek zeuden
joan dan arratsian.
Alegiñak egiten
zebiltzan atian
al zuten isillena
iriki naiian.

Eche jabeak zerbait
zuenian aitu,
leioan agertu zan
ojuka:—Barkatu,
bañan obe dezute
gerogo bueltatu
oraindikan ez gera,
jaunak, oieratu.

MARZELINO SOROA.